


Udal jangelan albergea jartzeko aukera aztertzen ari da Udala

■ Hezkuntza Batzordeak onartu du albergea jartzeko ideia eta lehen tramiteak hasi ditu Udalak ■ Udala jangela egokitu eta erabili izan dute lotarako Hernanira etorritako hainbat taldek lehen ere.

KIROLDEGI gaineko Udala jangela alberge bihurtzeko asmotan da Udala eta lehen tramiteak hasi ditu. Hernaniko Udala ordezkariek Diputazioko Gaztedi Saileko teknikariekin kontaktuan daude eta hauek albergea jartzeko asmoa bideragarria eta ona izan litekeela iritzi diote, baldintza asko baititu onak eta albergea jartzea errazten dutenak.

Gazteentzat egokia

Hernanira jende asko etortzen da urtean zehar, helduak eta gazteak gehienbat. Arriatsun ingurugiro eskola egiteko asmoa ere bada gainera eta horrek Hernanira umeak ere bilduko dituela aurreikusten du Udalak. Albergea guztiei irekia izango da, baina, teknikariek arabera gazteentzat da egokia, zentro zentroan baitago eta ondo komunikatua. Albergea banakoentzat eta talde organizatuentzat izan liteke egokia Mila Apeztexea alkateordeak Kronikari esan dionez, eta Hernaniko taldeek beste herri batzuekin egiten dituzten interkanbioetarako edo festa-



Goitik hasita, ezkerrean sarrera, beheko pisuko gela handia, goiko pisuko gela eta sukaldea.

ren baten bueltan etortzen diren taldeentzako ere erabili liteke albergea. Orain ere zenbait taldek erabiltzen du gainera jangela alberge moduan, udaran Auzolandegietara datozen gazteek edo dantzari festara datozen taldeek adibidez, bertan pasa izan dituzte egunak.

Azpiegitura ona

Udal jangelan albergea jartzeko arrazoietakoa bat da moldaketa haundiegirik behar ez izatea. Berez oso haundia da eta bi pisu ditu. Beheko solairuan sukaldea dauka eta egoera onean gainera eta eskailera beharrik gabe barrura sartzeko igo-

gailua ere badu frontoiko ate nagusitik. Logelak banatzea eta tajuzko komun eta dutxak jartzea da egin beharreko obrarik haundiena.

Oraingoz asmoa ontzat jo du Udaleko Hezkuntza Batzordeak eta orain tramiteak hasi, proiektua egin eta aurrera atera behar da. □

ELORRABIKO ISTRIPUAREN 25 URTEURRENA

Omenaldia prestatzeko bilera

1978an Urumea erriko estropadak jokatzeko ari zirela, Elorrabiko zubia erori eta sei lagun hil egin ziren. Ezbeharrak gertatu zela 25 urte betetzen dira aurten, eta Hernanin arraunlari izandakoen artean estropada egingo da, orduan hildakoak gogoratzeko. Ekainaren 25ean egin nahi da estropada, eta prestatzen laguntzeko, antolatzaileek bilera deitu dute apirilaren 27rako.

Bilera Ibarluzeko Arraun Pabeloian egingo da, apirilaren 27an, igandea, goizeko 10:00etan. Antolatzaileek bilerara azaltzeko dei egin diote Hernanin arraunean ibilitako jenerazio guztiei. □



Elorrabiko zubia.

HIRIGINTZA BATZORDEA

Agustinatako monastegia herritzen hasteko baimen eskaera eztabaidan

HIRIGINTZA Batzordea bilduko da gaur Udaletxean eta eztabaidatuko duten gaietako bat Agustinatako monastegia eraberritzeko baimen eskaera da. Zinkoenea eta Agustina inguru horretan dijoan proiektuaren parteetako bat da Agustinatako monastegia berri-tzea. Proiektuan Zinkoenea peatonalizatu eta inguruan etxeak, hotela eta zentro komertziala jartzeko asmoa dago, besteak beste.

ETXERAT ELKARTEA

Kontzentrazioa gaur

ETXERAT elkarteak antolatuta, presoan aldeko kontzentrazioa egingo da gaur, 20:00etan Gudari-rien plazan. Kontzentrazioaren lema: *Guztion artean euskal presoak Euskal Herrira*. Etxeratek dei egin die hernaniar guztiei kontzentrazioa azaltzeko. □

ZINEA BITERIN

'Gangster en Nueva York', asteburuko pelikula

ASTEBURU honetan *Gangster en Nueva York* pelikula botako dute Biteri kultur etxean. Gaur 22:30etan izango da; bihar, 19:30etan eta 22:30etan; eta igandean, 19:30etan. Umeentzako sesiorik ez dago Aste Santuak ezkerero. □

BERRIAK ELKARTEA

'Jokulandia' parkea gaur Plaza Berrian

BERRIAK elkarteak antolatuta, *Jokulandia* parkea egongo da gaur, Plaza Berrian. Parkean modu askotako jokuak izango ditu aukeran inguratzen denak: buruhausgarriak, ludoteka erraldoia, tradiziozko jokuak eta birziklatutako material-egindako 30 joku baino gehiago. Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Plaza Berrian. □

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain



Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani


Arandegia
Mari Fe



Nagusia 36 943 550 489
Orkolaga 17 943 552 741

HERNANI

Jatetxea
Venta Berri



Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxia

IKASTAROA
LANGABETUENTZAT

INGLESA: Publikoari atentzioa
-INEMek subentzionatua-

209 ordu
Ordutegia: 9:00 -13:30
asteleheneretik ostiraletara
Hasiera: maiatzak 9
Bukaera: uztailak 15

Oindi kalea 1
HERNANI
943 333711
943 334227



urolalde

■ ERRUGBIA



Kadeteen taldea, atzo, Landareko errugbi zelaian.

Kadeteek Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko dute bihar eta jubenilak Espainiako Txapelketako azken fasea dute asteburuan

- Kadeteek Atletiko San Sebastianen kontra jokatuko dute bihar, 12:30etan Zarautzen
- Jubenilak Alicanteko Villa Joiosa herrian finalerako txartela jokoan dute.

HERNANIKO errugbilari gazteek denboraldi dotorea dararakite aurtengoa ere eta partidu garrantzitsuak dituzte datorren asteburuan, denboraldia errematatzeko. Kadeteek Euskal Herriko finala jokatuko dute Zarautzen eta jubenilek Espainiako Txapelketako azken fasea dute Alicanten beste hiru talderekin batean.

Txapelaren bila

Kadeteek Euskal Herriko txapelaldun gelditzeko aukera handiak dituzte bihar. Atletiko San Sebastianen kontrako bi partiduak irabazi egin dituzte ligan eta biharkoa irabazteko ere esperantza handia dute, nahiz eta partidu bakarrera edozer pasa litekeela jakin. Partidua Zarautzen da, Asti zelaian, eguerdiko 12:30etan.

Galdu edo irabazi Hernani sailkatuta dago Espainiako Txapelketa jokatzeke, hiru aste barru Tarazonan, Estatuko 8 talde onenekin batean.

Iazkoa errepikatuzera

Jubenilak Euskal Herriko hirugarren gelditu dira aurten eta juxtu baina lortu dute Espainiako Txapelketara sailkatzea. Bihar eta etzi dituzte partiduak Alicanteko Villa Joiosa herrian. Talde erraza ez du Hernanik: *La Vila* Valentziako txapelaldun, *Ingenieros* Madrilgo bigarrena eta *Sextur*, Galiziako txapelaldun. Lehenengo gelditzen dena pasako da finala jokatzeke, beste 3 talderekin batean. Hernani txapelaldun gelditu zen iaz eta aurten ere *azaña* bera lortu nahi luke, oso erronka zaila duela jakin arren. Aurten badira nagusien taldearekin 7 partidu baino gehiago jokatuko dituzten jubenilak eta horiek ezingo dute jubenilen taldearekin jokatuko eta hutsunea nabaritutako da. Taldeak ordea gora egin du azken aldia eta gero eta indartsuago dago bai indarrez eta bai moralez. Ia ba aurten ere sorpresa onen bat ematen diguten.

Nagusiak 'errugbi 7'-an

Nagusien taldeek Liga bukatu dute, baina, ez denboraldia. Bihar Ejeara dihoaz *Errugbi 7* torneooa jokatzeke. Talde asko dira parte hartuko dutenak. Errugbi 7an zazpi zazpi kontra jokatzen dute eta partidu asko eta motzak jokatzen dira. Liga bukatuta denbora luzetxoan egon beharko luke Hernanik orain geldirik, eta hori komeni ez denez torneo eta lagunarteko partiduak jokatzeke asmoa dute, joko puntua eta irrikia ez galtzeko.

Hiru hernaniar selekzionatu

Hernaniko 3 jokalariek Espainiako selekzioak deitu ditu. Mikel Orbegozo *sub 17* selekzioak deitu du maiatzeko zubian Tarazonan egingo duten kontzentrazioa joateko. Garikoitz Barrio eta Jon Insaustik, berriz, *sub 19* selekzioarekin jokatuko berri dute munduko junior txapelketa eta B mailan 5garren gelditu dira. □

■ JASOTA BEZALA

BAKARKA EZIN DA

Orain urtebete, EAJ, PSE-EE, BATASUNA, EA, PSN, EBNEB, CDN, AB eta BATZARRE alderdiei Elkarri antolatutako Bake konferentziari buruzko balorapena eskatu zitzaienten, parte hartzaile gisa, eta denek aitortu zuten positiboa izan zela. Zirriborroan geratu zen "orri" bat ere adostu zen.

55.000 sinadurek bultzatutako eta etxeko nahiz kanpoko pertsona esanguratsu ugari babestutako ekimenak ez zuen nahi bezalako bukaerarik izan, baina egindako ekarpenak hor daude.

Orain, Elkarri kontsulta bat egiten ari da: "Berriro saiatuko al gara, bai ala ez?". 10.000 baiezkotzat jotzen badira, abian jarriko da, aurrekoaren jar-


raipena bezala, eta hobetzeko asmoarekin.

Zuk zer diozu? Merezi al du beste ekinaldi bat egitea?

Iritziak eta erantzunak jasotzeko larunbat eguerdian informazio banaketa egingo da Plaza Berrian, eta Maiatzaren 7an hitzaldi bat emango da Biterin. "Bakarka ezin da".

T.Elortza (Hernaniko Elkarri Tailerrekoak)

■ MAHAI TENISA



Aitor Mitxelena hernaniarra.

Eric Diez, Zuhaitz Irastorza, Aitor Valverde eta Aitor Mitxelena hirugarren, Espainiako txapelketan

JUBENIL mailako Espainiako txapelketak jokatuko dira Murtziako San Javier herrian, apirilaren 15etik 21era. Eric Diez, Zuhaitz Irastorza, Aitor Valverde eta Aitor Mitxelena hernaniarrek Atletiko San Sebastianekin jokatuko dute eta hirugarren gelditu dira. Hernaniarrek daukaten puntuaziarekin lehen fasea pasa egin zuten eta bigarren fasean hasi ziren jokuan.

Lautik lau

Bigarren fasean taldeko lau partiduak irabazi egin zituzten hernaniarrek *Calella*, *L'Hospitalet*, *Leganes* eta *Mercantil Sevillaren* kontra eta semifinaletara pasa ziren. Semifinaletan, ordea, hezur gogorra egokitu zitzaion Atletiko taldeari eta ezin izan zuten ezer egin *La General de*

Granada txapelaldun geldituko zen taldearen kontra. 3-0 galdu zuten hernaniarrek. 3-4garren postua *UCAM Cartagena* taldearen kontra jokatuko zuten eta ondo kostata baina irabaztea lortu zuten eta hirugarren gelditu. Badira hogeitatu urte Gipuzkoako mahai tenisak horrelako dominarik lortzen ez duela eta jokalariek hernaniarrek oso gustora bueltatu dira Murtziatik.

Binaka eta buruz buru

Binaka eta buruz buru ere jokatuko dira txapelketak Murtzian eta hernaniarrek paper ona egin dute. Buruz buru ondoena Aitor Mitxelena ibili da, final laurdenetarako pasa baita. Final laurdenetan Pablo Merino txapelaldunaren kontra galdu zuen. □



Inazio Aizpiolea eta Maria Lizeaga

50 urte elkarrekin

ZORIONAK

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

Esperientzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egingo luke. Deitu: **637 09 83 24**

Martxan dagoen Pub bat traspasatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: **943 55 06 18**

18-28 urte bitarteko mutil euskalduna behar dugu Hernaniko taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu: **943 55 26 46 - 658 750 896**

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: **656 78 64 15 (Kepa)**